

Fundación  
**BBVA**

**X. Musika Garaikideko  
Konzertu Zikloa**

**Bilbao**  
2019-2020

# Cuarteto Signum

Fundación BBVA  
San Nikolas Eraikina  
Bilbao

2020  
**14**  
**URT**



## BBVA Fundazioa

BBVA Fundazioak ezagutza zientifikoaren eta kultura-sorkuntzaren inguruan antolatzen du bere jarduera. Alde horretatik, gizarteak musikaren arte-adierazpena eskuratzen duen modu desberdinetatik barrena egindako ibilbide osatu baten antzera antolatzen du bere Musika egitaraua. Era horretan, obra berrien sorkuntza sustatzen du konposizio-enkarguen bidez, eta horiek zaintzea eta ezagutaraztea ahalbidetzen du punta-puntako zigilu eta interpreteekin elkarlanean egindako grabazioen bitartez. Zuzeneko musika sustatzen du urteko kontzertu-zikloen bidez, eta doakoak direnez, gaur egungo errepertorioan erreferentzia bilakatu diren ensemble eta bakarlariek jartzen ditu publikoaren esku. Hitzaldi-zikloak antolatzen ditu eta hainbat argitalpen kaleratzen ditu egileen, instrumentujotzaileen eta zuzendarien lana hobeto ulertzeko, edota konposizio-aldi jakin batzuen azterketan sakontzeko.

Musikari gazteen heziketa sustatzen du Reina Sofía Musikako Goi Eskolarekin garatzen dituen programei esker, eta ikertzeko, musika-ondarea berreskuratzeko eta sorkuntza-lan guztiz berritzaileak burutzeko proiektuak garatzen ditu Musika eta Opera arloko Leonardo Beken bidez.

Orkestren kudeaketari buruzko jardunaldi espezializatuak antolatzen ditu; estatu osoko opera-antzoki eta musika-egitura nagusiekin elkarlanean dihardu —hala Teatro Realekin nola Gran Teatre del Liceurekin, baina baita Madrilgo Orkestra Sinfonikoarekin eta Operaren Lagunen Bilboko Elkartearekin ere—, eta horiei esker, goi mailako kontzertuak eta opera-programak eskaintzen ditu; eta bikaintasuna aitortzen du Musika eta Opera alorreko Ezagutzaren Mugak BBVA Fundazioaren Sariaren bitartez eta Espainiako Orkestra Sinfonikoen Elkarte-BBVA Fundazioaren Konposizioaren Sariaren bitartez.



Fundación **BBVA**

## Interpreteak

### Cuarteto Signum

Florian Donderer, biolina  
Annette Walther, biolina  
Xandi van Dijk, biola  
Thomas Schmitz, biolontxelo

## Egitaraua

### LEHEN ZATIA

**Konstantia Gourzi** (1962)  
*Cuarteto de cuerda n.º 2, «P-ILION, neun fragmente einer ewigkeit»* 10'

- I. einatmen, 19:19
- II. ausatmen, 20:12
- III. tettix, 22:15
- IV. jasmin, 22:22
- V. geheimnis, 22:55
- VI. ode, 23:17
- VII. windig, 23:47
- VIII. tanz, 00:00
- IX. nachtblume, 01:11

**Gabriel Erkoreka** (1969)  
*Duduk IV* 8'

**Thomas Adès** (1971)  
*Arcadiana* 21'

- I. Venezia notturno
- II. Das klinget so herrlich, das klinget so schon
- III. Auf dem Wasser zu singen
- IV. Et... (tango mortale)
- V. L'embarquement
- VI. O Albion
- VII. Lethe

## Zikloaren koordinazioa

Gabriel Erkoreka

### BIGARREN ZATIA

**Arvo Pärt** (1935)  
*Fratres* 9'

**Kevin Volans** (1949)  
*Cuarteto de cuerda n.º 12* 36'

## Konstantia Gourzi

*Cuarteto de cuerda n.º 2, «P-ILION, neun fragmente einer ewigkeit»*

Konstantia Gourzi konpositore eta zuzendari greziarrak berebiziko garrantzia ematen die bere kultura sustraiei. Ikasketetan, Isang Yun eskola korearretik edan zuen (Michalis Travlos ikaslearen eskutik), baita tradizio alemaniarretik ere, Franz Martin Olbrisch zubi zela, baina laster sentitu zuen bere gizabanako izaera zehazteko premia eta kultura-herentzian topatu zuen horretarako bidea. Hala, nabarmen erro greziarrekoa da haren musika, «ezin baitaitezke bereizi errook antigoaleko tradizio kristau bizantziarretatik, ezta Europa hegoaldean sortaldeko musika-kulturek utzitako arrastotik ere», dio Gourzik, nork, bestalde, ez dio uko egiten mendebaldeari, mendebaldeko kanon polifonikoari eta nazioarteko abangoardiek garatutako instrumentu-erabilerei, zeinen oinarrian hotsaren, zarataren eta egituraren gaineko ikerketa dagoen. Konstantia Gourziren sormenak aurkako muturrin arteko tentsioan du sorburu, eta giza psikean duen interesa gehitu behar zaio horri. «Haren musika ez da sekula erabat intelektuala edo kontzeptuala», ziurtatzen du Christoph Schlüren-ek. «Haren esperimentuen oinarrian, azken batean, oso barnean sentitutako bizipenak daude».

*Pilion*, Pelion euskaraz, Greziako eskualde bat da, natura jori eta corpus mi-

tologiko oparokoa: izen bereko mendia zuten bizileku zentauroek, eta Jasonen eta argonauten abentura inguruotan hasi zen. Gourzik, egun batzuetarako hara joan, eta inguruaren ederrak inspiratuta, bigarren hari-laukotea konposatzeari ekin zion. Lekuaren izenak berak zenbait ideia iradoki zizkion: Pilion izenaren lehen letra, grezierako *P* maiuskula,  $\pi$  (pi) zenbakia ere bada, eta antzinako grezieran ate edo sarbide bat adierazteko erabiltzen zen ikurra da. *Ilion*, bestalde, grezierako *illos* hitzetik eratortzen da, eguzki edo argi esan nahi duena. Horrenbestez, piezaren izenburuan, Gourzi «argirako atea» ari zaigu aurkezten, bertan egin zituen egunetan horixe begitandu baitzizaion Greziako Pelion penintsula.

Laukotea, 2007an Athena Quartet laukoteak Kasseler Musiktage zikloan estreinatua, bederatzi mugimendu laburretan banatuta dago, hots, beste hainbeste eguneko edo gaueko une iheskorretan. Egileak dioenez, «askotan, gertakari garrantzitsu batek ez du askorik irauten: esaterako, arnasa harteak edo botatzeak. Hala ere, batzuetan betiko izango dela dirudi. Bederatzi miniatura hauetatik batzuk oso laburrak dira, baina oso luzeak irudituko zaizkigu. [...] Miniaturak argira garamatzaten uneen deskribapenak dira. Adierazpen indar jakin bat sortu nahi da horien bidez, denbora bizitasun handiagoz sentitzera behartuta egon

nadin, eta denboraren oihartzuna ohi ez bezala sentitzera. Izenburuaren alboan ageri diren zenbakiak eguneko orduak dira. Minutu oro gelditu egiten zen gertakaria denboraren pertzepzioa aldatzeko bezain bizia zenean».

## **Gabriel Erkoreka**

### *Duduk IV*

Bi hilabete baino ez dira Euskadiko auditorium handietan *Zuhaitz* obraren EAEko estreinaldia egiten aritu zela Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. Gabriel Erkorekarena da instrumentu folklorikoetarako eta orkestrarako kontzertua, konpositore bilbotarra iraganean funtsezko izan zuen ikerketa-ildora bueltatzen dena. Erkoreka liluratuta egon zen folkloreakin 1990eko hamarkadaren amaieratik milurteko berria ondo aurreratuta egon arte, ikuspegi zabalarekin: euskal musika herrikoira mugatu beharrean —bere sorkuntza arrakastatsuenetako batzuetan ezkutuango dago (esaterako, *Kantak*, SGA Eren Konposizio Saria 1996an)—, Erkorekak munduko beste leku batzuetako folkloreak ikertu ditu. Horren adibide dira *Duduk* (2000-2002) izeneko lauak, izen bereko oboe armeniarrean inspiratuak; *Afrika* (2002), marinbarako kontzertua —txalapartaren ahaide urrun bat—; *Rabel* (2003), Kantauri itsasaldean ohikoa den hari igurtzizko musika-tresna horren inguruan; edo *Yidaki* (2006),

saxofoi baritono batek *didgeridoo* australiarrarena egiten duena.

Erkorekak ez ditu bere horretan hartzen material tradizionalak, ez baititu melodia folklorikoak erabiltzen, ez behintzat erraz ezagutzeko moduan. Konposizioen oinarrian dago folklorea, baina, agertu ez, baizik ezkutatu egiten da bira melodikoen atzean, erritmoen fisonomian eta musika-tresna folklorikoen izaera takar eta askotan desafinatua imitatzen duten instrumentuen tinbre-tratamenduan. Esan behar da instrumentu folklorikoek, beren perfekzio ezean, mendebaldeko tresna zibilizatuek jada galduta dituzten ezaugarri akustikoak dituztela. Erkorekak, jarrera politiko halako batean, inperfekzio horren apologia egiten du: «Xehetasun txiki bakoitzaren aldaketa —adibidez, desbideratze erritmiko finak edo lerro melodikoaren desbideratze mikrotonalak— oso modu zainduan eta zehaztasun handiz idatzita dago. Hala, osotasunari bere kutsu berezia ematen dio, xehetasun txiki horietako bakoitza berau barne hartzen duen mundua existitu dadin ezinbestekoa den neurrian», dio Philip Howard-ek.

Esan bezala, Erkorekak *duduk* oboe armeniarrean inspiratutako lau piezako serie bat konposatu zuen 2000 eta 2002. urteen artean. Musika-tresna abrikotondo zurez eraiki ohi da, eta sonoritate nasal eta apur bat negartia du bereizgarri. Saxofoi sopranoa irudi

lezake. Erkorekak, hain juxtu, seriea saxofoi soprano bakarrerako piezarekin hasi zuen (*Duduk I*), eta bertako soinu-aurkikuntzak saxofoi-laukotera eramán zituen geroago *Duduk II* piezan. Ondoren, bi oboe eta adar ingeles baterako hirukotea osatu zuen —*dudukaren* baliokideak mendebaldean—, eta, azkenik, gaur gauean entzungo dugun obra sortu zuen, *Duduk IV*, lehengo saxofoi-laukotearen materiala hartzen duena, baina idazkera arku-instrumentuetara egokituta.

Musika armeniarren berezitasunak oso nabarmenak dira Erkorekaren *Duduketan*. Armeniar folklorearen eskala tradizionalak daude idazkeraren oinarrian, baita «duduk-pordoiak» ere: musika-tresna handiak dira, instrumentu nagusia laguntzen dutenak, ufaldi jarraitua erabilita. Hala, «pordoiaren eta melodiaren arteko polarizazioa, muturrera eramanda, inguruabar emozional halaber muturrekoaren adierazpide da: lur galduaren oroiminetik ernetzen den oinazea eta bizi-raupen sena. Horiek dira armeniarren bereizgarri», dio Erkorekak.

## Thomas Adès

### *Arcadiana*

Thomas Adès ia hiru hamarkadaz egon da musika britainiarren lehen lerroan, baina ez da ahaztu behar oraindik ez

dela iritsi berrogeita hamarretara. Izan ere, goiztiartasun musikal harrigarria izan zuen: ez hainbeste piano-jotzaile gisa —BBC Young Musician of the Year saria irabazi zuen 1989an, 18 urterekin—, baizik eta konpositore gisa: 1990eko hamarkadaren hasieran jada haren izena zerabilten ahotan musika garaikidearen zirkulutan, eta 1995ean, *Powder Her Face* operarekin arrakasta itzela lortuta, nazioartera hedatu zen haren ospea. Erabateko ospea 2000 urtean iritsi zitzaion, artean hogeita hamar urte ez zituela; Grawemeyer Award saria eman zioten, Polar sariarekin batera munduan denik eta konposizio sari prestigiotsuena, *Asyla* orkestra obrarengatik. Adès da sari hori jaso duten konpositoreetan gazteena. Lehenago, esaterako, Lutosławski, Ligeti, Penderecki, Takemitsu eta enparauek eskuratu dute.

*Arcadiana*, Adèsen hastapenetako lane-tako bat da, hari-laukote bat, zehazki. Opus 12.a da katalogoan, *Powder Her Face* baino urtebete lehenagokoa, eta londrestarraren nortasun sortzailearen bereizgarriak oso zehaztuta ageri dira jada: konposizio-teknika miragarri eta heterogeneoa, inspirazio poetiko izugarri jantzi eta delikatuaren zerbitzura jarria eta musikaz kanpoko elementuetan bermatua sarri, eta umoreari uko egin gabe. Honakoa idatzi zuen Adèsek *Arcadiana* buruz (Endellion String Quartetek estreina-



tu zuen): «*Arcadiana* osatuta dagoen zazpi tituluetatik seik "idilio" galduak edo galzorian daudenak dituzte hizpide. Mugimendu bakoiti guztiak urtarrak dira, eta elkar lotutako piezak lirudikete hurrenez hurren interpretatuko balira. *I*, gondolari ilun baten balada izan liteke; *III*-k Schubert-en *Lied* baten izenburua eta figurak hartzen ditu; *V*-en itsasontzi bat ageri da itsaso haserrean, *L'Isle Joyeuse*-era bidean; *VII* Ahantzuraren mugimenduak artzainen Arkadiatan kokatuta daude, hurrenez hurren, Mozarten "Gauaren Erresuma" eta gertuagoko eskualdeak. Sorta horretako komodina da laugarren mugimendua, itopuntu modukoa dena: Poussinen hilarria, "Eta Arkadian ni" idazkunarekin».

## Arvo Pärt

### *Fratres*

Tradizioari uko egiteko jarrera hartu zuen xx. mendeko egile askok, baina konpositore taldetxo batek, gerora *minimalista mistiko* deituek, 1970eko eta 1980ko hamarkadetan oso bestelako konponbidea eman zion iraganeko musikarekiko harremanaren arazoari: Europa Erdialdean dinamika apurtzaillean eta konposizio-lengoaiaren etengabeko eraldaketan murgilduta zeuden bitartean, Arvo Pärt eta enparauak (John Tavener eta Henryk Górecki dira ezagunenak) atzera begira jarri ziren,

mendebaldeko musikaren sustraietara, hots, musika greziarrera eta kantu gregorianora, bizipen erlijiosoari erotik loturiko soinu purutasun galduaren bila.

Gaztaroan, Pärt estoniarrak musika neoerromantikoetan, serialismoan eta pastiche tekniketan topatu nahi izan zuen bere ahotsa, baina 1970eko hamarkadara arte ezin izan zuen garatu bere kristau arima zentsura sobietarra asaldatu gabe musikaratzeko formula, aurreko obretan, *Credo*-n (1968), kasu, betoa jarri baitzion. Teknika berria, *tintinabulazio* deitu zuena, kantu gregorianoaren eta x. mendeko *organum* polifoniko primitiboen berregituraketa pertsonala da. Pärtek gogoan du errebelazioa izan zuen unea: «Kantu gregorianoko grabaketa bat zen. Ez dut akorduan non aditu nuen, Tallingo liburu-denda batean agian. Hain zen sinplea musika, hain argi eta burutsua. Harri eta zur geratu nintzen, eta, bat-batean, ohartu nintzen horretan zetzala, musika-pentsamolde horretan, egia».

Pärtek eskala diatonikoa eta triada maior edo minorreko akorde bakarra uztartu zituen teknika berrian; alegia, mendebaldeko musika tonal osoaren oinarritzko ekaia. Hain elementu puru horiek hotsaren ikono halako bat bihurtzen dira, eta ikono hori, balio sinbolikoz gainezka, ahalik eta erarik neutroenean manipulatzeko du konpositoreak: Pärt instrumentuak eta, eskalaren eta akor-

dearen arteko konbinazio-prozesuaren pautak hautatzera mugatzen da, eta prozesuak, behin abian jarrita, berez egingo du aurrera, perfekzio zerutiarra hurbilduz. «Axola duena ez da melodia», azaltzen du Pärtek. «Axola duena da triadarekin zer-nola uztartzen den. Sortzen den loturak bihotza urratzen du. Arimak beti nahi luke kantatu».

Pärtek teknika horrekin egin zuen lehen esperimentua 1976koa da, piano bakarrerako *Für Alina* pieza, baina aldi horretako obretan ezagunena, zalan-tzarik gabe, *Fratres* (Anaiak, 1977) da; esaten denez, egunero interpretatzen da munduan han edo hemen, estoniarrak gaur arte egin dituen hoge bertsioetako batean. Re minorreko akorde sekuentzia bat, pordoi bat eta hiru ahots homofoniko erabiltzen dira, eta perkusio-motibo sinple batek laguntzen du (Pärtek *babesleku* esaten dio, eta laukoterako bertsioan, biolontxeloaren *pizzicati*-ekin zertzen da). Hori da *Fratres* piezak bere kasa aurrera egiteko behar duen guztia, instrumentuen erregistro altuenetik baxuenera daraman ibili geldoan.

### Kevin Volans

#### *Cuarteto de cuerda n.º 12*

Pärtek bezala, Kevin Volans minimalismoaren eskolakoa da, baina oso beste-lakoa da Volanesen minimalismoa. Biek

partekatzen dute, gainera, norberaren ahotsa erreakzio bati erantzunez aurkitu izana: Volansen kasuan, Stockhausen maisuak sartu zion serialismoarekiko benerezioaren aurrean etorri zen erreakzioa. Musikan eta pinturan lehen urratsak jaioterrian eman ondoren (Pietermaritzburg, Hegoafrika), Volans 1973an iritsi zen Alemaniara, eta Kolonian ezarri. Garai hartan, abangoardiaren lehen lerroan zen hiria. Bob Gilmoren arabera, «Alemaniako eszena berria, 1970eko hamarkadan, estiloarekin tematuta zebilen, baina modu erabat preskriptiboan —egiatan, proskriptiboan—». Stockhausenen ikasleek debekatuta zuten musika tonala idaztea; zortidunak ere ezin zituzten idatzi, nahi gabe azpimarratzen zelako tonu bat besteen gainetik, eta, horrenbestez, zentro tonala zela ematen zuelako». Volansen arabera, Richard Toop, Stockhausenen laguntzaile eta, gerora, musikologo itzaltsu izan zenak, «edertasunik ez!» debekatzen zien ariketetan eta gogora dakar, halaber, «Stockhausenek ez zuela jasaten osatugabetasuna eta behin eta berriz esaten zigula esku artean genuen materialaren [soinuaren] aukera guztiak azter genitzala. Hala esaten zigen: “Aukera guztiak baliatzen ez badituzue, manierista hutsak baino ez zarete”. Seriearen erruduntasun-sentipena sartu zigan barruan».


Hainbat urtez ideario konpositibo zurrun haren pean egonik, Volans go-

gaitu, eta Stockhausenez «arnegatu-tako» beste ikasle batzuekin batera (Michael von Biel, Chris Newman edo Walter Zimmermann), abangoardia serialen printzipioei aurka egiten zien musika idazten hasi ziren. Sortu zuten mugimendu artistiko hari *Sinpletasun berria* izena eman zioten, eta posmodernismo musikalaren lehen adibideetako bat izan zen European. Gilmoreren hitzetan, «kontua zen, aurrerantzean, sinpletasuna ez zegoela debekatuta, ezta tonalitatea ere, ez erritmo metrikoa, ez beste musika batzuen aipamena edo parafrasia. Konpositore horiek uko egin zioten balioa estiloaren arabera neurtzeari. Ez zuten gehiago sinesten musikaren bilakaera lerrozuzena dela dioen “dogma historizistat”; ez zuten sinesten konposatzeko modu onargarriak eta arbuigarriak dauden ideian».

Volansen kasuan, hots-mundua berregituratzeko gakoa musika afrikarrean topatu zuen. Haurtzarotik ezagutzen zuen, Hegoafrikatik, eta Kolonian ekin zion musika hura serio ikasteari. Hala ere, musika afrikarretik erakargarrien zitzaiena ez ziren ezaugarri erritmiko, melodiko edo tinbriko berezi haiek, baizik eta zein modu irekian garatzen den musika denboran zehar. «Interesgarria egiten zitzaidan musika afrikarra, bestelakoa delako formaren eta denboraren pertzepzioa, eta ez duelako erruduntasun-sentipenik aldaketen

aurrean. 1970eko hamarkadan seriearren erruduntasuna izan bagenuen, 1980ekoan, erruduntasuna aldaketak egiteko antsia bihurtu zitzaigun: edozein musika-pieza hasi eta bat, hura aldatzen hasi behar ginela sentitzen genuen. Alabaina, musika afrikarrean ez dago halakorik, erruduntasunik gabea da, eta nik musika formagabea idazten ahalegindu nahi nuen».

Lehen bi hari-laukoteek eman zioten arrakasta gehien nazioartean Volansi, hain zuzen, *White Man Sleeps* (Gizon txuria lo dago) eta *Hunting: Gathering* (Ehiza: Bilketa) lanek, biak ala biak Kronos Quartetek estreinatuak, 1986 eta 1987 urteetan, hurrenez hurren. Irlandara lekualdatu zen gero, eta konpositore belaunaldi baten maisu izan da. Ordutik, maiz jorratu du generoa Volansek, *Hari-laukotea*, 12. zk. honetara iristeraino; Birminghamen aurkeztu zuen 2016an gaur gauean interpretatuko duen laukote berak: Signum laukotea. Berrogei minutu inguruko mihise luze-zabala da. Bi soinu-izaera kontrajarri agertuko zaizkigu batera, aurka edo nahasita: bata, oso mugikorra, *pizzicati* irmotan gauzatua, eta bestea, nota luzez eratua, harmoniko ahuletan adierazia maiz. Mugimendu bakar eta izugarri luze batean norgehiagoka aritzen dira batzuk eta besteak, harik eta errepikapenaren errepikapenez efektu hipnotiko bat sortu, programako lehen obran, Konstantia Gourziren horretan,



gertatzen zen legez, denboraren per-  
tzezio ohikoaz bestelakora garama-  
tzaten arte.

**Mikel Chamizo**

## Cuarteto Signum



Cuarteto Signumek aztarna (latinez, *signum*) utzi du laukoteen nazioarteko eszenan, interpretazio kementsu eta alaiak direla medio, eta egungo talde gazte zirrargarrietako bat bihurtu da.

Laukotea 1994. urtean sortu zen, eta Bayer Kultur erakundeak babestu du stART-Künstler ekimenaren barnean. Gaur egun, BBC Radio 3 New Generation Artists programako kide da.

Laukotearen garapen artistikoko mugarriak dira egin dituzten ikasketa trinkoak Cuarteto Alban Berg, Cuarteto Artemis eta Cuarteto Melosekin, eta lankidetzak György Kurtág, Walter Levin, Alfred Brendel, Leon Fleisher eta Jörg Widmann musikariek. Gainera, sari ugari irabazi ditu, tartean, International String Quartet Competition—Premio Paolo Borciani de Reggio Emilia saria, Hanburgoko Internationale Kammermusikwettbewerb (ICMC) eta Londresko String Quartet Competition. Azken horretan, Entzuleen Saria ere eskuratu zuen. 2018 urtean, azken diskoak, *Schubert: Aus der Ferne*, Diapason d'Or saria jaso du, eta 2019an, Opus Klassik saria, Alemanian ematen den sari garrantzitsuenetako bat; nolabait esatearren, musika klasikoko

Oscar saria.

Laukotearen mentore dira oraindik ere Jörg Widmann eta Alfred Brendel, eta taldeak, besteak beste, hiri haue-  
tan jo du: Paris, Viena, Kolonia, Basilea, Oslo, Frankfurt eta Santa Fe. Halaber, jaialdi ospetsu askotan hartu du parte: Davos Festival, Lofoten Internasionale Kammermusikkfest, West Cork Chamber Music Festival, Schleswig-Holstein Musik Festival, Rheingau Musik Festival, Aldeburgh Festival of Music and the Arts eta Festival d'Aix-en-Provence. Halaber, Berlingo Philharmonien jo du, Berliner Philharmonikerren Quartett zikloan; Düsseldorfeko Tonhallen, Leon Fleisherrekin; Londresko Wigmore Hallen, BBC Proms egitasmoan; Hanburgoko Laeiszhallen; Stuttgarteko Kultur- und Kongresszentrum Liederhallen; Amsterdamgo Concertgebouwen; eta Bostongo Harvard Musical Associationen.

Goethe-Institut erakundeak gonbidatuta, taldea Asian, Erdialdeko Amerikan eta Afrikan ibili da. Gure herrialdean, Madrilan eta Bartzelonan kontzertuak eman ditu, bai eta Valentziako Sociedad Filarmónica, Salamanca Ciudad de Cultura y Saberes Fundazioan

eta Kanarietako Nazioarteko Musika Jaialdian ere. Hurrengo emanaldi aipagarrienak dira, ohi bezala, Amsterdamgo Strijkkwartet Biennalekoa, eta New Yorkeko Carnegie Hallen lehen aldiz ariko direna, 2020ko azaroan.

# Hurrengo kontzertuak

---

## Musika Garaikideko X. Kontzertua Zikloa BBVA Fundazioa

BBVA Fundazioa • San Nikolas plaza, 4. Bilbao • 19:30 h

2020 | 02 | 11

### KEA Ahots Taldea

#### Enrique Azurza (zuzendaria)

Luis de Pabloren *Zurezko Olerkia* (bere 90. urteurrenaren omenaldiz)

2020 | 03 | 10

### United Instruments of Lucilin

Tristan Murail, Claude Lenner, Clara Olivares, Israel López Estelche, Julián Ávila, Fausto Romitelli eta Helmut Lachenmann-en lanak

2020 | 03 | 31

### Trio Catch

Isabel Mundry, Gérard Pesson, Dai Fujikura, Mikel Urquiza eta Irene Galindo Quero-ren lanak

2020 | 04 | 21

### Alberto Rosado (pianoa eta elektronikak)

Iñaki Estrada, Aurélio Edler-Copes, Manuel Martínez Burgos, Raquel García-Tomás, Gustavo Díaz-Jerez, Carlos D. Perales eta Jonathan Harvey-ren lanak

2020 | 05 | 5

### Trio Accanto

Georges Aperghis, Johannes Schöllhorn, Ramon Lazkano eta Mikel Urquiza-ren lanak

---

## Zikloz kanpoko kontzertua

BBVA Fundazioa • San Nikolas plaza, 4. Bilbao • 19:30 h

2020 | 03 | 5

### Darío Martín (pianoa)

Enrique Granados, Heitor Villa-Lobos, Isaac Albéniz, Ernesto Lecuona eta Alberto Ginastera-ren lanak

